



USURBILGO LANBIDE ESKOLAK AURRERAPAUZO BAT EMATEN DU DUAL SISTEMAREN INGURUAN.

Usurbilgo Lanbide Eskolak Heziketa Dual Sistemaren inguruko emanaldi berezi bat garatu du.

Bertan ADEGIk, Alemaniako hainbat enpresek eta Merkatal Ganbarek, BMW, F-BB, CEA-PME, besteak beste, GKN Driveline enpresa euskaldunak eta baita Lanbide Heziketa berritzen aritzen den TEKNIKAK ere parte hartu dute.

Topaketa honen helburua, Usurbilgo Lanbide Eskolako dual sisteman aritzen diren ikasleek Alemaniako hainbat enpresetan egonaldi labor bat eginez dual sistema arrunta borobildu dezaten, oinarriak finkatzea izan da.

Benetan aberasgarria gertatu da saioa, Usurbilgo Lanbide Eskolak 2012.urtean martxan jarri zuen Dual Sistemaren inguruan aurrerapauzo bat emateko oinarriak finkatu dira eta.



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

IEFPS USURBIL GLHBI